



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ANE GOMEZ URTEAGA ANDREAK, ALKIZAKO UDAL GORENEKO BEHIN
BEHINEKO IDAZKARI KONTUHARTZAILEAK,

ZIURTATZEN DU: 2019ko azaroaren 26 egindako Udalbatzarraren
ohiko bilkuran ondorengo akordioa hartu zela:

SEIGARREN PUNTUA

UDAL LANPOSTU FUNTZIOEN ONESPENA, HALA BADA

Ikusita, udal lanpostu desberdinen funtzioak finkatu direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Dokumentuaren eranskinetan jasotzen diren Udal Lanpostuen
Zerrendan xedaturiko lanpostuen funtzio eta zereginak onartzea.

BIGARRENA.- Hartutako ebazpena, Iragarki Taulan, eta Alkizako udaleko web
orrian argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Espedientea informazio publikoan jartzea eta interesatuei
entzunaldia ematea hamabost laneguneko epean, iragarkia jendaurrean jartzen
den egunetik kontatzen hasita. Interesatuek espedientea aztertu eta alegazio
edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte aipaturiko epean.

Alegaziorik aurkeztu ezean, Udal lanpostuen zerrendan xedaturiko lanpostuen
funtzio eta zereginak izeneko dokumentua behin betikoz onartutzat emango da.

=====

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan ziurtagiri hau
luzatzen dut, Alkizan bi mila eta hemeretzi abenduaren bederatzian.

IDAZKARIA